

Protesta egiteak, ordea, arriskuak ere baditu, greba deialdi asko langile eta polizien arteko liskar larriekin amaitu dira eta. Protesta egiteagatik kartzelan urtebete eman duenik ere bada. Hori da, esaterako, Wu Guijunen kasua. Shenzhen altzari enpresako jabeak enpresa lekuz aldatzeko asmoa erakutsi zuen, baina langileei inolako kalte-ordainik emateko asmorik gabe. Langileak kalera irten ziren egoera salatzeke eta Guijun atxilotu eta espetxeratu egin zuten horregatik.

Aurrerantzean izango diren grebetan agintariak hartuko duten jarrera funtsezkoa izango da China Labour Bolletin elkarteke programa kudeatzailearen us-

tez: «Lan interesen eta enpresari-riren interesen artean oreka lortzea lagungarria izango da grebek eragiten dituzten kexei aurre hartzeko, eta horretan lan egin beharko dute agintariak».

Langileen eskubideen defentsan lan egiten duen China Labour Bolletin elkartearen esanetan, grebak hirukoiztu egin dira herrialdean 2014ko lehen hiruhilekoan

Multinazionalak prezioak murriztu dituzte eta enpresak langileen lan baldintzak estutzen ari dira etengabe irabazi tartea handitzeko helburuarekin

Europar Batasun desberdin bat

Ruben Sanchez

Europako Parlamenturako hauteskundeak datozela eta,

hasi da kanpaina gurean ere. Indar politiko nagusiek Europar Batasunean eta bertako legebiltzarrean sinesteko gonbita luzatzen digute, eta hainbat koloretako hauteskunde-gazta ere eskaintzen digute.

Europar Batasunarekin kritikoen EH Bildu ageri da: «Europar Batasun desberdin bat. Beraz, ez dugu Europar Batasunaren eredua eraberritzea planteatzen, baizik eta prozesu eratzaile bat martxan jartzea». (EH Bai koalizioa, bere aldetik, ez da aurkeztu eta EH Bildurentzat eskatu du botoa). EH Bildu koalizioa ideologia ezberdineko alderdiek –besteak beste Europar Batasunarekiko ikuspegian– osatzen duten neurrian, ulergarria da, denak ahalik eta gusturen egon daitezen, erdibideko proposamen bateratua egiteko ahalegina, azkenean, “EB desberdin bat” leloan laburbiltzen dena.

Gainera, egia da *realpolitik*-a ere hor dagoela, areago mapa ofizialetan ageri ez den herri bat mapa ofizialetan ageriko den estatu bihurtzea nahi duzunean. Alegia, proiektu independentista baten alde herritar ahalik eta gehien erakarri nahi/behartu duzunean, eta nazioarteko komunitatearen aurrean *realinteresting* txaketarekin agertu beharra duzunean.

Alabaina, ezker abertzalearen jarrera historikoa herrien eta herriarren Europa baten aldekoa izan da. Eta galdera logikoa da: posible al da Europar Batasun hain desberdin bat lortzea? (Posible al da armadak bakezaleak izatea, edo Eliza katolikoa ez dogmatikoa, edo kapitalismoa sozialista?) Nik uste inork gutxik sinesten duela horrelakorik benetan. Aitor nezake “errealismo” aproposko pixka bat “euskal” trantsizioan. Baina esan egia: olibak ba al du barruan hezurrik? •

